

PROGRAMA
EUSKARA

UZTAILA ABUZTUA IRAILA 2021



AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO

gizartea eta kultura
garaikidea


Bilbao

ARTE BISUALAK / ARGAZKI-INSTALAZIOA
EKA. 1 > IRA. 19

Elssie Ansareo

BIO-INT-DÍA

«BIO/INT/DIA DA SENTSazio,
SENTSUALITATEA, ERRETRATUA
BIRPENTSATZEA GEHIEGIKERIATIK,
KEINUETIK ETA, BAI, BERRAZTERTUTAKO
ETA ESANAHI BERRIZ HORNITUTAKO
FANTASIATIK». **ELSSIE ANSAREO**



Elssie Ansareo artistak *BIO-INT-DÍA* proiektuarekin esku hartuko du Lantegia. Ideien laborategiko fatxadan, zehazki 21 leihoetan egindako instalazio fotografiko eta ikus-entzunezko irudiarekin, eta proiektzio bat egingo du eraikinaren plano zeharrean kokatutako Eguzkiaren Pantailan

BIO-INT-DÍA (Bilbao-Interior-Día, Bilbo-Barnea-Eguna) izenburuak filmen gidoi teknikoaren terminologia, kokapena eta argiztapen-asmoa ditu aipagai kasu honetan. Garai batean egunerokoa zen errealitatekin datorren fikzio baten eraikuntza narraitiboa da.

Jarrera kontzeptual hori koloretako 21 argazki gisa aurkezten da, biniloan inprimatuta eta leihoetan itsatsita; gorputz-zatiak erakusten dituzte, eskuetan, ahoetan eta keinuetan zifratuta, minutu bateko bideo batez lagunduta. Proposamen sentsorial eta hunkigarria lehen begiratuan, kolorez eta fantasiaz betea.

BIO/INT/DIA Elssie Ansareoren lehen arte-lana da, artsitak dioenez, «ezagutu genuen munduaren amaieraren ondoren. Entzierro infinitu eta unbertsalaren bizipena laburbiltzen du, eremu geografiko bat zehaztuz, Bilbo. Sentipena, sentsualitatea, erretratua exageraziotik birpentsatuz, keinua eta, bai, fantasia ere bai, errebisitua, beste esanahi bat emanez. Niretzat, emakumea, zuri-beltzeko argazkilaria, fantasia ere, errebelatzailea izan da. Bai, kolorea eta fantasia behar nituen».



ELSSIE ANSAREO.(Mexiko Hiria 1979) Arte Ederretan lizentziaduna da UPV/EHUtik. Bere lan artistikoarekin hainbat espaziotako erakusketetan parte hartu du, bakarka eta taldean: Bilboko Guggenheim Museoa, Fundación Gabarrón NY, La Casa Encendida Madril, Malagako Arte Garaikideko Zentroa, Artium (Gasteiz),

Centre d'art La Panera, Marzana Espazioa, Cubo Azul eta Parisko Pavé d' Orsay besteak beste.

Bere ibilbidean Berdintasun Ministerioaren Arte Plastikoetarako INJUVE Saria eta Arte Plastikoetarako Endesa Beka jaso ditu. Bere azken argitalpena, "El Observatorio" da, historiari buruzko ikerketa-proiektu bat, Deustuko Unibertsitatearekin elkarlanean egina.

Arte-bilduma garrantzitsuen parte da bere lana, besteak beste, hauena: Bilboko Guggenheim Museoa, Endesa Fundazioa, Bilboarte Fundazioa, Iruñeko Udala, Artium Museoa, Teruelgo Museoa, Unicaja Fundazioa edo Mediterraneo Zentro Artistikoa (MECA).

////////////////////////////////////
Ekainak 1 > Irailak 19
Astelehenetik igandera
9:00 – 21:00
Ataria
////////////////////////////////////

proto.....
..... tipo
ak

BIO/INT/DIA Elssie Ansareoren proiektu bat da, Azkuna Zentroaren Prototipoak. Forma Artistiko Berrien Nazioarteko Bienalaren esparuan garatua.